

PROIEKTUAREN EDUKIA

(II. eranskineko 2. puntuaren arabera: "Proiektuaren edukia")

Gutxienez eduki hau izan behar du:

a) Memoria:

- i. Zein den jarduera industrial, eta zertarako erabiltzen diren presio-ekipoak.
- ii. Presio-ekipoaren identifikazioa eta ezaugarriak.
- iii. Aplikatzekoak diren arauzko betekizun guztien justifikazioa.
- iv. Azterketa, ea instalazioa erabiltzeko segurua den (zamalanelarako elementuak, irekidurak eta itxiturak, segurtasun- edo prozesu-balbulen deskargak, arrisku egoeretan sartzea eragozten duten gailuak, azaleko tenperaturak, edukiontzietan dauden substantziak deskonposatzea edo su hartzea, edo mantentze-lanetarako edo ikuskapenetarako irizpide bereziak, besteak beste), barne direla instalazioaren balizko arrisku bereziekin lotutako neurri espezifikoak.
- v. Larrialdietarako jarraibideak, eta segurtasun-elementuak aktibatzen badira edo akatsen bat badute zer egin behar den zehazten duen prozedura.

b) Aurrekontua.

c) Planoak:

- i. Instalazioaren printzipio-eskema, garbi adierazita zein diren presio-ekipoak eta non dauden segurtasun-osagarriak. Funtzionamenduarekin lotutako parametro nagusiak adierazi behar dira (presioa eta tenperatura, besteak beste).
- ii. Instalazioa edo establezimendua non dagoen adierazten duen plano, erreferentzia aldaezinak adierazita (UTM koordinatuak, ETRS89 *datuma*) eta eskala, gutxi gorabehera, 1/10.000 eta 1/50.000 bitartekoa.
- iii. Instalazioak kokalekuan duen kokapenaren plano, honako hauek adierazita: dimentsio orokorrak, ekipo nagusien kokapena eta, hala badagokio, beste arrisku batzuekiko distantziak. Proiektua egiteko gida gisa UNE 157001 araua erabiltzea gomendatzen da.